

BBVAk Banca Catalana eta Banco de Alicante filialak bereganatuko ditu

Operazio horri esker, bankuak 12.000 milioi pezetako mozkinak izango ditu urtean

Erredakzioa / Donostia

BBVA banku berriak BBVren orain arteko Banca Catalana eta Banco de Alicante filialak bereganatuko ditu talde osoaren integrazio prozesua bukatzeko. Operazio horren arabera, 2003. urtetik aurrera banketxeak 12.000 milioi pezetako mozkinak izango ditu (480 milioi libera). CCOO sindikatuak bateratzeak lanpostu galerak ekar ditzakeela ohartarazi du.

BANCA CATALANA eta Banco de Alicante bereganatzeko erabakia taldeak hemendik hamabost hilabetera izen bakarra, hau da, BBVA, izateko asmoari dagokio, Orduan, BBVren eta Argentariaren arteko bateratze informatikoa gauzatuko baita.

BBVAk Banca Catalanaren %97,6 du, eta bereganatuko duen lehena izango da. Ildo beretik, Banco de Alicanteren %99,1 duen arren, hasieran Argentaria izenarekin soilik funtzionatuko du banketxeak.

Banca Catalana Katalunian eta Balear Uharteetan kokatuta dago, 377 bulegorekin, eta 14.794 milioi pezetako etekin gordinak izan zituen joan den azaroaren 30ean egindako balantzean. Bestalde, Banco de Alicanterek 101 bulego ditu, eta 1.978 milioi pezetako irabazi gordinak izan zituen.

BBVAk bi banketxeoz gain, baditu beste batzuk ere: BBVtik datozen Banco de Comercio eta Privanza y Finanzia, eta Argentariak



Emilio Ibarra eta Francisco Gonzalez, BBVAko buruak, banku horren sorreraren berri eman zuten prentsaurrekoan.

gehitutako Banco de Credito Local eta Banco de Negocios Argentaria. Horiei, gainera, Uno-e Intenetek darabilen banketxea gehitu behar zaie.

Taldearen arabera, ekimen berriak «interes handiko guneetan kokatzeko aukera emateaz gain —Katalunia, Valentzia eta Balear Uharteak—, mozkin ekonomiko handiak eskainiko dizkio», kostuak jaitsi egingo direlako, eta sarrerak, berriz, igo. BBVAk emaniko datuen arabera, aipatu bankuen bereganatzeak 12.000 milioi pezetako etekinak emango dizkio urtero 2003. urtetik aitzina (480 milioi libera).

Era berean, bereganatzeak beste onura batzuk ere ekarriko dizkio. Kataluniako eta Balear Uharteetako eremuan Espainiako BPGren %20 baino gehiago dagoela aintzat hartuz, BBVA inguruko hiru garren banketxea bilakatuko da, lantegien merkatuaren %42 eta bezeroen %15 bereganatuta.

26.000 milioi aurreztuko ditu

BBVk orain dela lau urte hasi zen aipatu eramuetan zabaltzen. Orain bi banku ertainon bereganatzearekin BBVAk dio ez duela galerarik ekarriko BBVk zein Argenta-

riak eremuan dituzten bulegoentzako. Aldiz, bereganatzearekin BBVk 26.000 milioi pezeta aurreztuko ditu (1.040 milioi libera), ez delako erakundearen irudia aldatuko.

CCOO: «Lanpostuak galtzeko arriskua»

Bereganatzeak lanpostuak galtzea ekarriko duen kezka agertu du CCOO sindikatuak. Adierazi duenez, arrisku hori egon badago, batez ere Katalunian. «Orain birmoldaketa izango ote den kezka dugu», azaldu du sindikatuko banka arduradun Jaume Muelasek.

Atzo Nafarroan eraturako metalaren mahaia heldu den asteartean bilduko da berriz

■ Sindikatuek lehen bilera izan zuten atzo patronalarekin

Irene Arrizurieta / Iruñea

HELDU DEN asteartean bilduko da atzo Nafarroan eraturako metalaren hitzarmena negoziatzeko mahaia. UGTk bost ordezkari izango ditu negoziazio mahaian, CCOOk eta ELAk launa ordezkari izango dituzte eta LABek bi.

BPG gaintzen duen soldata igoera eta lanor- duen gutxitzea dira sindikatuon aldarrikapen nagusiak. Atzo goizen Nafarroako Metalaren Enpresa Elkartarekin (ANEM) eta sektoreko lantegi txiki eta ertainak ordezkatzan dituenekin (APYMEM) bildu ziren estreinakoz. Lan hitzarmena sinatu arte asteartero batzartuko dira bi aldeak enpresarien egoitzan.

Lan hitzarmenak Nafarroako 25.000 langileri eraginen die. Ramon Javier Goldarazena ELAko Nafarroako Metaleko ordezkariaren esanetan, atzokoa protokolo hutsa izan bazen ere, aurrerantzean egingen diren bilerak bestelakoak izanen dira, negoziazio «gogorak eta luzeak» espero dituztelako.

Sindikatu bakoitzak mahai gainean baldintza jakin batzuk jarri arren, iragan urtea, Gobernuaren esanetan behintzat, ekonomia aldetik ona izan dela aintzat hartuz, «metal arloko beharginen lan baldintzak hobetzeko» eskatu dute.

Egun, hilean 140.000 pezeta jasotzen ditu metaleko behargin batek (5.600 libera). ELAk hileroko soldata gutxienez 10.000 pezeta igotzea galdegin du. CCOOk, berriz, soldata taulak gaintzen dituztenen igoera %4koa izatea aldarrikatu du, eta BPGren gainetik %1,5eko errebisioa. UGTk, bestalde, kategoria baxuena dutenen soldata 233.000 pezetakoa izan dadila dio, eta gainontzakoetan BPGri beste lau puntu gehitzea proposatu du.

Bestalde, LABek lanor- duak gutxitzeko ere aldarrikatu du, eta segurtasun neurriak bermatzea.

Kataluniako bankua sortzeko ametsaren bukaera

Erredakzioa / Donostia
MERKATUEN globalizazioak eta Europako banketxeen bat-egiteak zapuztu egin ditu Banca Catalanak betidanik Kataluniako banku nazionala bilatzeko egindako ahal-eginak.

Banca Catalanak azken bi hamarkadetako Kataluniako politikan zeresan handia izan du, baina azkene-

an BBVA banku erraldoiak irentsi du.

Banca Catalana 1959an sortu zen, Kataluniako enpresari talde baten ekimenez. Haien artean Jordi Pujol zegoen, egun Generalitateko presidentea. Oloten (Girona) Banca Dorca erosi eta urtebetera egoitza Bartzelonara eraman zuten. Orduan sortu zen Banca Catalana. Era-

kunde jaioberriak finantza merkatuan murgiltzeko ahalegina ez ezik, katalana izateko apustua ere egin zuen, Katalunian zegoen gabezia bete nahirik. 60ko hamarkadan erakundeak sarea zabaltzen, eta etekinak handitu ziren. Hala ere, hurrengo hamarkadan saneamendu arazoak izan zituen berea duen Ka-

taluniako Industria Bankua dela eta.

Pujol Generalitate iristean, laguntza izan zuen, baina arazoak bere horretan jarraitu zuen. Bankuak arazoak sortu zizkion Pujoli, Bartzelonako Fiskaltzak berari eta beste zuzendari batzuei 20.000 milioi pezeta bereganatzea leporatu baitzien.

Hala ere, Generali-

tateko presidentea ez auzipetzea erabaki zuen Fiskaltzak gero.

Bankuak bestelako arazo ekonomikoak izan dituen arren, haren egoerak nabarmen hobera egin du azken urteotan. Caixa eta Sabadell bankuei ere erosteko proposamena egin bazaie ere, BBVAren eskuetan geratu da azkenean Banca Catalana.